

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2021eko ekainaren 19tik 25erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/06/21

- **Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Administrazioa. - Lan eta Enplegu Saila.** - Bizkaiko elikagai-denden sektorean etxez etxeko banaketak egiteko probintzia-hitzarmen kolektiboa (2021-2023). [III-129 xedapena - 21 or.](#)

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/06/19

- **GORTE NAGUSIAK. - Langileen Estatutua.** - Ebazpena, 2021eko ekainaren 10ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila maiatzaren 11ko 9/2021 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa, zeinak aldatzen baitu 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testuategia onesten duena, plataforma digitalen esparruan, banaketan aritzen diren pertsonen laneko eskubideak bermatzeko. [10225 xedapena - 1 or.](#)
- **Premiazko neurriak.** - Ebazpena, 2021eko ekainaren 10ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila "Filomena" boraskak eragindako kalteak arintzeko premiazko neurriak hartzen dituen maiatzaren 18ko 10/2021 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. [10226 xedapena - 1 or.](#)
- Ebazpena, 2021eko ekainaren 10ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila enplegua babesteko, ekonomia berrakibatze eta autonomoak babesteko premiazko neurriei buruzko maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. [10227 xedapena - 1 or.](#)
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA. - Geneen eraldaketa. Kontrolerako araubide juridikoa.** - 406/2021 Errege Dekretua, ekainaren 8koa, zeinaren bidez aldatzen den genetikoki aldatutako organismoen erabilera konfinatuaren, borondatezko askapenaren eta komertzializazioaren araubide juridikoa ezartzen duen apirilaren 25eko 9/2003 Legearen garapenerako eta betearazpenerako Araudi orokorra onesten duen urtarilaren 30eko 178/2004 Errege Dekretua. [10229 xedapena - 10 or.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA. - Medikamentuak.** - Ebazpena, 2021eko ekainaren 2koa, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziarena, giza erabilerako medikamentu izaera ematen diena operazio aurreko kirurgia esparrura bideratutako eta injekzio puntua desinfektatzeko antiseptikoei. [10252 xedapena - 2 or.](#)

2021/06/23

• **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA. - Baso suteak. Istripuak.** - PCM/641/2021 Agindua, ekainaren 21ekoa, baso suteak itzaltzeko lanetan laguntzen dutenek jasaten dituzten istripuei dagozkien kalte-ordainak finkatzen dituena. [Disposición 10417 - 9 págs.](#)

• **LURRALDE POLITIKAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. - Mugaz gaingidiko kooperaziorako hitzarmenak.** - Ebazpena, 2021eko ekainaren 14koa, Lurralde Koordinazioko Idazkaritza Nagusiarena, Pirinio Atlantikoetako Departamentuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren mugaz gaingidiko Lankidetzak Hitzarmena (2021-2024) argitaratzen duena. [Disposición 10494 - 6 págs.](#)

2021/06/24

• **OGASUN MINISTERIOA. - Zergak.** - HAC/646/2021 Agindua, ekainaren 22koa, honako agindu hauek aldatzen dituena: EHA/3434/2007 Agindua, azaroaren 23koa, zeinaren bidez onetsi ziren balio erantsiaren gaineko zergan erakunde taldeen erregimen bereziari dagozkion hileko autolikidazioaren 322 ereduak -banakakoarena-, 353 ereduak -agregatuarena- eta 039 ereduak -datuak jakinaraztearena-; EHA/3786/2008 Agindua, abenduaren 29koa, zeinaren bidez onetsi zen 303 ereduak -Balio erantsiaren gaineko zerga. Autolikidazioa-; EHA/3111/2009 Agindua, azaroaren 5koa, balio erantsiaren gaineko zergaren urteko aitorpen-laburpena aurkezteko 390 ereduak onesten duena; eta HFP/417/2017 Agindua, maiatzaren 12koa, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren egoitza elektronikoaren bidez balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro-liburuak nola eraman -abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 62.6 artikuluan ezarria- garatzen duten zehaztapen arauemaile eta teknikoak eta beste zerga-arau batzuk arautzen dituena, eta beste zerga-arau batzuk aldatzen dituena. [10509 xedapena - 23 or.](#)

• **BARNE MINISTERIOA. - Mugak.** - INT/647/2021 Agindua, ekainaren 23koa, zeinaren bidez aldatzen den uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua. Agindu horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, irizpideak aldatzen dira hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen herrialdeetara nahitaezkoak ez diren bidaiak galarazteko behin-behineko murrizketa ezartzeko, ordena publikoaren eta osasun publikoaren arloko arrazoiengatik. [10510 xedapena - 2 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/06/19

- **XEDAPEN OROKORRAK. - LEHENDAKARITZA.** - 30/2021 DEKRETUA, ekainaren 18koa, lehendakariarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretua, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzkoa. [3514 xedapena - 1 or.](#)

2021/06/22

- **XEDAPEN OROKORRAK. - HEZKUNTZA SAILA.** - AGINDUA, 2021eko maiatzaren 20koa, Hezkuntzako sailburuarena, helduen Oinarrizko Hezkuntzaren berariazko curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. [3527 xedapena - 78 or.](#)

2021/06/23

- **XEDAPEN OROKORRAK. - OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA. - ERABAKIA**, 2021eko apirilaren 12koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, sendagai arriskutsuen Batzorde Korporatiboa sortzen duena. [3570 xedapena - 6 or.](#)

2021/06/25

- **XEDAPEN OROKORRAK. - EKONOMIA ETA OGASUN SAILA. - 155/2021 DEKRETUA**, ekainaren 22koa, zeinaren bidez aparteko neurriak onartzen baitira 5/2021 Errege Lege-dekretuaren I. tituluan autonomoentzat eta enpresentzat aurreikusita dauden zuzeneko laguntzak kudeatzeko, izapidetzeko eta ekonomikoki kontrolatzeko (5/2021 Errege Lege-dekretua, martxoaren 12koa, COVID-19aren pandemiari aurre egite aldera enpresen kaudimena bultzatzeko aparteko neurriena). [3639 xedapena - 3 or.](#)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2021/06/25

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 399/2021 Foru Agindua, ekainaren 21ekoa. Onespina ematea 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietako sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkorren eta atzerrian eratuta egonik Arabako Lurralde Historikoan ari diren errenten egozketaren araubideko erakundeek ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren autolikidazioa egiteko aurkeztu behar diren 200 eta 220 ereduak eta eredu horiek telematikoki aurkezteko baldintza orokorre. [2342 xedapena - 122 or.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/06/22

- **Ogasun eta Finantza Saila.** - 5/2021 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, ekainaren 15ekoa, Kontseiluaren 2017ko abenduaren 5eko 2017/2455 (EB) Zuzentarauaren eta 2019ko azaroaren 21eko 2019/1995 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten duena. 2017/2455 (EB) Zuzentarauaren bidez 2006/112/CE Zuzentaraua eta 2009/132/CE Zuzentaraua aldatu ziren zerbitzuak eta ondasun-salmentak urrunetik egiten direnean balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez sortzen diren betebeharrak batzuei buruz; 2019/1995 (EB) Zuzentarauaren bidez 2006/112/CE Zuzentaraua aldatu zen, hain zuzen ere ondasunen urruneko salmentei eta estatu barruko ondasun-emate batzuei buruzko xedapenak. [I-512 xedapena - 33 or.](#)

2021/06/23

- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1140/2021 FORU AGINDUA, ekainaren 14koa. Honen bidez, onetsi egiten dira Sozietateen gaineko Zergaren (Bizkaiko Lurralde Historikoan ari diren atzerrian eratutako errentak eratxikitze araubideko erakundeak) eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrek) autolikidazioa aurkezteko 200 eta 220 ereduak, eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietan ereduak telematikoki aurkezteko prozedura arautzen da. [I-510 xedapena - 160 or.](#)

2021/06/25

- **Gizarte Ekintza Saila.-** Gizarte Ekintzako foru diputatuaren 38196/2021 FORU AGINDUA, ekainaren 24koa, zeinaren bidez bisitak eta irteerak arautzen baitira adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen Bzkaiko Lurralde Historikoko egoitzazentroetan. [I-553 xedapena - 4 or.](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2021/06/23

- **DIPUTATU NAGUSIA.** - 4/2021 Foru Araua, ekainaren 14koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2019ko Kontu Orokorra onartzen duena. [4179 xedapena - 7 or.](#)

2021/06/24

- **GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA.** - 358/2021 Foru Agindua, ekainaren 22koa, maiatzaren 14ko 273/2021 Foru Aginduaren eranskineko neurriak aldatzen dituen. Foru agindu horrek desgaitasuna duten pertsonentzako eta adineko pertsonentzako zentroetan bisitak eta irteerak arautzen ditu. [4381 xedapena - 2 or.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO